



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

AKTA GIZARTE ONGIZATE BATZORDEA

Eguna : 2011ko azaroaren 28a.

Ordua : 18:00retan.

Tokia : Udaletxeko 2. solairuan.

Deituak : AA

ALANON
ALZHEIMER
ANBULATEGIKO ARDURADUNA
ANTIGUAKO AMA JUBILATUEN ELKARTEA
ESKLEROSIS
GORABIDE ELKARTEA
MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA
BILDU
EAJ

Bertaratuak : - AVIFES : M^a Natividad Bakeriza

Lurdes Belaustegi

- Dementzia dutenen familiarrak: Joseba Zubikarai

- Gorabide : Begoña Zelaia

Jose Ibarloza

Inmaculada Laka

- Esklerosidun familikidea :Josu Arrizabalaga

- Esklerosi taldekoei laguntza taldekoak :Nekane Landaribar

Idoia Alegria

- Bildu : Juan Ramon Iriondo

- Ongizateko zinegotzia : Rakel Elu

Gai zerrenda : 1.- Aurreko aktaren onarpena

2.-2012an sentsibilizazio kanpainarako taldeen proposamenak

3.- Informazioa zabaltzeko triptikoa

4.- Aurreko batzordean egindako eskaerak

5.- Besterik.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

1.- Aho batez onartzen da.

Jarraian, Ongizate batzordearen izaera irekia eta parte hartzailearen izaera adierazi da barriro, gaurkoan, AVIFES eta ESKLEROSI taldeetan laguntzen ari direnen partaidetza berria izan delako batzordean.

Taldeak guztion datuak jasotzen duen orria berbegiratu da, falta diren zehaztapenak egiteko eta berrien datuak gehitzeko.

ALCER-reko inor etortzen den galdetu da (gultzurrunetako gaitza). Momentuz ezetz erantzun da baina interesgarria litzatekeela, norbaiten kontakturik edukiz gero, partaidetza anitzagoa izatea.

AVIFES taldean parte hartzen duten familikideek, 15ero Durangon batzartzen direla adierazi dute, 2 psikologoek laguntzarekin. Duela urte batzuk Markinan biltzen ziren baina gaur egun, kide gutxiago biltzen direlako gure eskualdetik edo, Durangoraino joan behar izaten direla. Hasiera batean 90 kasu inguru bazituzten ere, gaur egun 4/5 kasu baino ez dira talderatzen gure herritik. Beherakada horren zergaitiaz hausnartu da apur bat. Baita, bilerak eskualdera ekartzearen premia ere. Udal arduradunek hitz egin dute Santurtziko langile sozial batekin eta honetaz arduratzen den administrariarekin egongo dira, taldearen beharrak azaltzeko eta eskaerak bideratu ahal izateko.

2.- 2012ko sentsibilizazio kanpainari buruz hitz egin da berriro ere. Udazkenean egitea aproposa izan leikela ikusi da (urrian edo). Beste buelta bat eman zaio ideia honi. Hasiera batean, ekimen honek suposatuko lukeen gainerazko lanaren beldurra islatu den arren, talde bakoitzak ideiarekin bat proposatuz gero, denon artean egitarau zabal bat modu dinamiko batean gauzatu dezakegula eta lan karga gehiegirik gabe ulertu da.

Hurrengo bilerarako, talde bakoitzak zerbait zehaztuta edo pentsatuta ekartzearen ardura hartu du.

Agertu diren zenbait ideia : biodantza, “risoterapia”, psikoonkologoek zerbitzua, “ Bicicleta, cuchara, manzana” (alzheimerrekin tratatzen duen, Maragallei buruzko pelikula)..

Zenbait gaixok komunikatzeko duten zailtasunaz eta teknologikoki agertu diren berrietaz hitz egin da, adib. Iriskom programa, ordenagailua begiez kontrolatzen ahalbideratzen duena. Premia bereziak dutenei halako aurkikuntzak erakutsi eta eskaintzearen beharra.

Eguneko egoitzaren norakoez hitz egin da gaurkoan ere, zenbat ohe, zenbat erresidenteentzat eta zenbat eguneko egoliarrentzat, familikide dependienteak dutenentzat, egoera larririk agertuz gero, oherik gordeko den...Ongizate alorreko aldundiaren erantzunak gogoratu dira eta baita, halako eskaerak erantzun ahal izateko, gure herriko udalarekin hitzarmen puntualak egon daitezkeela esan zuela.

3.- Informazio triptikoaren edukiaz hitz egin da, hau da, bertan agertuko den informazioari buruz, adibidez, talde guztien oinarritzko datuak, gizarte zerbitzuetatik bideratzen diren laguntzen berri, ospakizun ezberdinen egutegia, sentsibilizazio kanpainako egitaraua...



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

4.- Aurreko batzordean egin ziren eskaerak hirigintza batzordera bideratuta daudela adierazi ondoren, beste eskaera batzuk egin dira :

- Arraun talde eta gaztetxearen ondoko eskaileretan baranda falta dela,
- Lur zoruaren gora beherak, batez ere, institutu paretik eta kamiñazpiraino; hau dela eta, gurpildun aulkia behar duten pertsonak pairatzen dutenari buruz hitz egin da . Gero baita, aulki, ohe artikulatu...eta halako egokitzapen guztiek dakarten gastu gehiarriez ere hitz egin da.

5.- Besterik :

-Minbizia taldekoek eskatu zuten lokalari buruz, horretan gabiltzala eta laster emango dugula kokapenaren zehaztapena. Baita ere, eurentzat eta gainerako ongizateko taldeentzat lokal amankomuna prestatuko dela, egutegi-ordutegi bat adostu eta batzarretako egokitua.

- Indarkeria sufritu duten emakumeentzako etxe babestuaren proiektua aurrera eramango dela eta horretarako ongizate bideratu dela aurrekontuaren zati bat. Udalak duen etxe bat egokituko da horretarako. Lea Artibai amankomunazgoko bilera orokorrean, eskualdeko etxe babestuen sarea egiteko udaletik dagoen proposamenaz ere hitz egin da.

Alor honetako protokoloa martxan dago eta koordinatzaileak izendatuta daude.

-Etxean hainbat urtetan sartute bizi den jendearentzat (ezintasun ezberdinak direla eta medio) behin edo behin kalera urtetzeko eman nahi diogun aukerari buruz, Gurutze Gorriaz jorratu dezakegun aukeraz hausnartu da. Herri moduan eskualdetik hitzartuta daukagun bakarra, jaietarako ekimen berezi batzuetarako babesa baino ez da. Beraz, proposamen hau ere, mankomunazgoko bilerara eramateko aukera du udalak eta eskualdetik zein herri lez Gurutze Gorriako arduradunekin solasean hasteko asmoa dago. Batzordekide batek, hango arduradun bat ezagutzen duela eta berak ere honetaz zerbait mugitzeko ahalegina egingo duela adierazi du.

- Gorabideri, Aurrera mendi taldiarekin zer gertatu zitzaien galdetu zaie, aspaldian, elkarrekin ez baitute ekintza amankomunik egin. Euren erantzuna, euren seme alabek, egiten zen eran ez zirela hain eroso sentitzen (talde handian integratzeko bidean egin ordez, eurak kolektibo lez bakarrik mendira eroanda) eta bertan behera uzten joan zirela.

- Gizarte zerbitzuetara laguntzak eskatzera datozeinei eta euskeraren jabe ez direnentzat, AEKrekin euskera batzordeak hitzartu duen eskaintzaren berri eman da, euskera klaseak hartzeko eta dohanik. Gizarte zerbitzuetatik egingo zaie klase horietara joateko promozioa.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Batzarra 20:15ean amaitutzat eman da.

Hurrengo batzar eguna : 2012ko urtarrilaren 23an, arratsaldeko 18:00etan.

Ondarroan, 2011 azaroaren 28an.